

Gelako eztabaida.

Gure herriaren historian, gerran defentsarako harresiak egiten ziren, besteak beste. Bermeon, harresiaren zatirik handiena bizirik ez badago ere, San Juan portale izena ematen zaion atea eta alboetako hormak zutik daude. Gaur udalak agiri bat atera du harresiaren azken zatia bota behar duela esanez, eta hau egiteko eman duen arrazoi bakarra etxe gehiago egin behar direla da.

Gai hau berabagai hartuta,

- a. Eztabaida piztu behar duzue zuen gelan. Honetarako, talde bi egin: talde bat harresia botatzearen aurka egongo da eta bestea harresia botatzearen alde. Lehenik eta behin talde bakoitzak zenbait argumentu zerrendatuko ditu eta helburua, adostasun bat lortzea da.
- b. Ostean, udaletxera bidaltzeko gutuna idatzi beharko duzue, bertan zuen iritzia plazaratuz.